

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Barrutik
Sententzia.
Discos Suicidas.
Iraupena: 27'13".
5 euro.

Sentimenduz idatzitako heavy-rocka

BERGARAN kokatutako heavy harrobi gaztearen hirukotea dugu Sententzia, Dragon Fly eta Luther taldeetako kide ohiek osatutakoa, eta eibartar batek, mutrikuar batek eta bergarar batek sortutakoa. Heavya eta rocka batuta, bes-telako emaitza lortu dute hainbat kasutan: tarteka heavy klasikoan murgilduta, pop-rocka landuz, baladak eginuz edota azeleragailua zapalduta, besteak beste. Are gehiago, bateria

eritmo sendo eta gitarra rifeei teklatuek gorpuzkera handiagoa ematen diete. Hitzei dagokionez, maitasuna, gaua, ametsak, itsasoa, askatasuna eta beste izan dituzte berba guztiak sentimenduetan. Discos Suicidas konpainia beteranoak kaleratu du lana, eta horretarako hainbat soinu teknikari eta ekoizleren laguntza izan dute Garate eta Lorentzo Records estudioetan.

Sententzia

«Hitzek lotura zuzena dute egunoroko gauzekin, eta jendea identifikatu egiten da»

Heavy talde askorekin alderatuta, bes-telako melodiak lantzen dituzue...

Gure estiloa rock eta heavyaren arteko nahasketa da. Gitarra bizi eta bateria eritmo gogorrei ahots melodikoa batzen diegu eta horri gure estilo pertsonala gehitu.

Hainbat soinu teknikari eta ekoizleren laguntza izan duzue diskoa egiterakoan. Horrek lana asko erraztu du?

Bai, oso gustura gelditu gara guztiekin, profesional onak izan dira gurekin. Zer hobetu edo nola landu esan digute kasu batzuetan eta aholku horiek oso lagungarriak izan dira. Askok ikasi dugu.

"Barrutik" egindako diskoa da? Sentimendu asko atera dituzue bertara?

Bai, horretan ahalegindu gara. Musikari dagokionez, indarra eta sentimendua sartzan saiatu gara. Hitzek egunerokotasunean gerta-

tzen diren gauzekin lotura zuzena dute. Hala, jendea hitzekin identifikatu egiten da.

Zer gertatzen da Bergaran aspaldian, hainbeste talde heavy sortzeko?

Hasieran Igorrek eta Ikerrek Dragon Fly taldea sortu zuten. Taldea banandu zenean, batzuk Lord Witch

sortu zuten eta beste batzuk Sententzia. Bi taldeetan Iker dabil baterian. Bergaran musika estilo asko daude, baina aspaldian heavyak bere lekutxo dauka.

Hirukote moduan konforme zaudete?

Bai, ondo gaude, baina tarteka kolaborazioak sartzan ditugu. Hala ere, inoiz beste gitarra bat sartzea pentsatu dugu. Etorkizunean, nor daki...

Eguzkiak bahitzen ditu beti gaueko ametsak?

Beno, normalean gauekoak ametsak besterik ez dira eta batzuetan gaueko ametsak egunsentian amaitzen dira, baina baliteke amets egiten duzuna errealitate bihurtzea.

Su Ta Gar eta Avalanch moduko taldeen eraginak suma daitezke zuen lanean. Ados zaudete?

Su Ta Gar betidanik izan dugu gustuko. Luther taldearen eraginak ere badaude, Oliber taldekidea handik dator eta. Bestela, Rage, Metallica, Sober, Latzen eta beste ere presente egon daitezke. ■

